

# KALITATEA HEZKUNTZAN PROIEKTUA 2021-2022

## Proyecto de Calidad en la Enseñanza

### 1. HELBURUAK

Kalitatea Hezkuntzan kudeaketa sistema, Kudeaketa Aurreratua eredurantz egokitzea izango da aurtengo helburu nagusia.

- Ikastetxeko Plan Estrategikoa egitea da aurtengo egitasmoa, ikastetxeak egindako **AUTODIAGNOSTIKOA** abiapuntu izanda eta **Kalitate Hezkuntzan kudeaketa sistema berritzea**.

### LAN EGITEKO ERA. EGITURAK

Ikasturtean zehar bi eremutan egiten dugu lan

#### Ikastetxeko lana

1.-“Autodiagnostikoa” abiapuntu harturik **Ikastetxeko Plan Estrategikoa** berrituko da .

2.- Kalitate sistemako prozesuak berrituko dira.

Kalitatea Hezkuntzan proiektuak etengabeko hobekuntzaren alde lan egiten du era koherente eta sistematikoan. Halaber, ikastetxe osoari eragiten dio modu globalean: ikas-irakas prozesua, tutoretza, metodologia, antolakuntza, funtzionamendua ... ikasleen garapen integrala lortzeko bidean

.-Kalitate lantaldea antolatu da aurtengo lana aurrera eramateko eta ikastetxeko koordinazio egituretan (Zuzendaritza bilerak, BP, klaustro, Eskola Batzordea,..) hausnartuko dira kalitate proiektuaren inguruko gaiak.

#### Kalitate Sarea

61 ikastetxek osatzen dugu Kalitate Sarea eta aurtun zazpi ohiko bilera antolatu dira Arrasateko Institutuan. Teoriarik praktikara saioak (sarean parte hartzen duten ikastetxeen esperientziak, praktika onak) eta Berritsu Taberna( sarekideen bilera informala) antolatzeko asmoa dago. KH APLIKAZIOA martxan jarriko da Hezkuntzako beste aplikazioak dauden kokapenean.

- Kalitatea Hezkuntzan Sareak parte-hartzaileei aholkularitza eta berrikuntza arloan esperientziak partekatzea errazten die, elkarlana bultzatuz.

## 2021/2022 Jardueren planifikazioa

### 1. Helburua

Sarearen ezagutza, hedapena eta erronken garapena: Kalitatea Hezkuntzan sistema, bere potentzialtasuna eta sarean egiten ditugun lanen (ekintzak, gogoetak, ikerketak, dokumentuak...) ezagutza eta hedapena bultzatzea.					
Helburuak	Ekintzak	Denboralizazioa	Baliabideak	Jarraipena eta ebaluazioa	
				Jarraipen adierazleak	Lorpen adierazleak
1.1.- Ohiko Bileren antolaketa	Ohiko Bileren antolaketa egokitzea. Ikasturteko bilera orokorrak eta beharren arabera bilerak sortzea. Ohiko bilera orokorrak sarearen antolaketa eta funtzionamendurako erabiltzea.	Ikasturtean Zehar	Urteko plana eta egutegia Sareak dituen baliabideak: Moodle, Gidak, Mapa eta dokumentuak Saretik kanpoko aholkularitza	Ikasturteko bileren egutegia zehaztu (ikasturte hasieran) Beharren arabera bilerak definitzea (Abendurako)	Aurreikusitako bileren %100a burutu. Ohiko bileren ebaluazioa burutu eta balorazio orokorrean 4tik 3.5 ≤

<p>1.2.- Sarekide berrientzat Aholkularitza zuzena planifikatu, gauzatu eta ebaluatu:</p>	<p>Aholkularitza zuzena eskaini behar duten sarekideei (KH Sareko Koordinatzaileak)</p>	<p>Ikasturtean zehar</p>	<p>Bisiten egutegia eta akta ereduak KH prozesuen mapa berritua eta beste sarekideen ereduak (moodle) Sareak dituen baliabideak: Moodle, Gidak, Mapa eta dokumentuak</p>	<p>Bisiten egutegia zehaztu (ikasturte hasieran) Sarekide bakoitzaren lan plana adostu (lehenengo hiruhilabetean) Adostutako lan planaren jarraipena egin (urtarrilean)</p>	<p>Aurreikusitako bileren %100a burutu. Aholkularitzaren ebaluazioa burutu. Ikastetxeek gogobetetzea neurtzeko inkesta bete eta balorazio orokorrean 4tik 3.5 ≤.</p>
<p>1.3.- Sarearen Komunikazio Plana hedatzen jarraitzea:</p> <p>komunikazio eta Kanpo komunikazioa.</p>	<p>Urteko Komunikazio Plana egin. Sarearen web orrialdea elikatu eta diseinua hobetzen jarraitu, Sare sozialetara eraman gure ekimen eta berri guztiak (Twitter, <i>KHsarearen Youtube kanala</i>) Sortzen dugun material berria web orrian eta Moodle plataformaren bidez sarekideen eskura jarri.</p> <p>Kanpo komunikazioa gauzatu: Sarekide berriak erakartzeko protokoloa aurrera eraman (bideoa sortu).</p>	<p>Ikasturtean zehar</p>	<p><a href="#">Web orria</a> Moodle Sare sozialak: Google apps: posta,drive, meet, sites</p>	<p>Adostutako lan-planaren jarraipena egin (urtarrilean) 21/22 urteko plana garatu.</p>	<p>Planifikatutako ekintzen %90 burutu. Sarekideen gogobetetzea komunikazioari dagokionez 4tik 3.5 ≤.</p>
<p>1.4.- Praktika komunitateak sortzen laguntzeko egitasmoak antolatu: irakasle-sareak <a href="#">BerritsuTaberna</a></p>	<p>ARTIUMeko hezkuntza arduradunarekin kontaktuan jarri ekimena aurrera eramateko. Aurreikusten dugu Berritsutaberna maiatzean egitea Gasteizen. Etapa guztien parte hartzea bultzatuz. Aurkeztuko diren praktiken grabazioa egin. Berritsutaberna promozionatzeko bideoa sortu. Berritsutaberna promozionatzeko sare</p>	<p>Berritsu Taberna maiatzaren 5an</p> <p>Ikasturtean zehar</p>	<p>BerritsuTaberna gune digitala web orrialdean. Sare sozialak: twitter, ... Promozio bideoa</p>	<p>BerritsuTaberna planifikatu (bigarren hiruhilerako)</p>	<p>Sarekideen %80a egitasmoan parte hartzea. Etapa guztietako esperientziak aurkeztea.</p>

	sozialak eta web orria erabili.				
1.5.- <a href="#">Teoriatik praktikara</a> egitasmoan sarekide guztien inplikazioa lortu: ikastetxe bakoitzak praktika on bat eskainiz ezagutu nahi dituen praktikak zehaztuz Teoriatik praktikara eskaintza modu eraginkor batez zabalduz saretik ikastetxeetara eta irakasle guztiengana	Teoriatik Praktikara egitasmoa planifikatu eta gauzatu. ikastetxeen partaidetza areagotuz (LH, DBH, kudeaketa aurreratua..). Eskaintza osatu. Eskaerak kudeatu. Saioen jarraipena egin.  Egitasmoa promozionatzeko bideoa sortu. Ebaluazioa egin, ondorioak atera eta hobekuntza proposamenak zehaztu.	Teoriatik Praktikara Urtarrilaren 24tik 28ra	Promozio bideoa. Galdetegia eskaintza osatzeko. Galdetegia eskaerak kudeatzeko. Ebaluazio galdetegia parte-hartzaileentzat eta turoreentzat.	Teoriatik praktikara eskaintza osatu (abendurako) Teoriatik praktikarako eskaerak kudeatu (urtarrilerako)	Sarekideen %80 parte hartzea (praktikak eskainiz edota ezagutuz). Balorazio orokorra 4tik 3.5 ≤.
1.6.- Beste sare eta aliantzekin harremanak sustatu: HEIZE, EJIE, TEKNIKA , ISEI-IVEI,...	Beharrianen arabera jarraitu kontaktua mantentzen eta elkarlana sustatzen. Konpetentzien ebaluazioan aliantzak lantzen jarraitu Sarekideak prestatzen joateko.	Ikasturtean zehar	HEIZE, EJIE, TEKNIKA, ISEI-IVEI,...rekin elkarlana	Egin diren bileren aktak	Adostutako lan plana bete.

## 2 Helburua

<b>Hezkuntza Sailarekiko harremanak eta elkarlana sendotzea.</b> Kalitatea Hezkuntzan sistema tresna indartsua izanik ikastetxeetako HEZKUNTZA PROIEKTUA osatu eta ondo gauza dadin laguntzeko, Hezkuntza Sailari gure kolaborazio eskaintzen jarraitzea, ikastetxeetara zabal dadin gure lana.					
Helburua	Ekintzak	Denboralizazioa	Baliabideak	Jarraipena eta ebaluazioa	
				Jarraipen adierazleak	Lorpen adierazleak
2.1. Irakasle Koaderno digitala garapenean eta balizko esperientzia pilotuan Hezkuntza saileko beste eragileekin lankidetzan aritu (ikuskaritza, EJIE, Berritzeguneak )	Kalitatea Hezkuntzatik bultzatuko dugu koaderno digitalaren garapena. Koaderno digitala eta Kalitate Aplikazioaren lotura bultzatuko da	Ikasturtean zehar	Irakasle koaderno digitala.	Eragile desberdinekin egindako bileren aktak.	Adostutako lan plana bete.

2.2."Eskola publikoan AURRERAKA" egitasmoarekin jarraitu Hezkuntza Sailarekin lankidetzan arituz (Plan Estrategikoa, autodiagnostikoa eta kontrastea)	Plan Estrategikoaren 1. bertsioa sortu eta argitaratu Hezkuntza Sailarekin batera. Plan Estrategikoaren garapenaren aholkularitza aurreikusi Hezkuntza Sailarekin batera. Autodiagnostikoa aurreikusi Hezkuntza Sailarekin batera.	Ikasturtean zehar	Aurreraka proiektuaren batzorde teknikoa (Ikuskaritza, ISEI-IVEI, Berritzegune Nagusia, Berritzapen zuzendaritza , KH koordinatzailea Dinamizatzaileak (Euskalit, ....))	Eragile desberdinekin egindako bileren aktak	Adostutako lan plana bete.
2.3. Zonaldetako Berritzegunetako harremanak eta lankidetzan sistematizatu.	Berritzeguneein harremanetan jarraitu eta sortzen ditugun tresnen eta garapenen berri eman. (Plan Estrategikoaren gida, KH aplikazioa)	Ikasturtean zehar	Sarekideen aholkulari-erreferenteak	62 sarekideen aholkulari erreferenteak identifikatuko dira (irailean) eta beraiekin batzar bat egingo da (1. hiru hilekoan)	Erreferente guztiek KH kudeaketa ereduaren inguruko formazioa jasotzea.

### 3 Helburua

Kalitatea Hezkuntzan kudeaketa sistemaren eguneratu eta Kudeaketa Aurreratua eredurantz egokitzen jarraitu, ikaskuntza-prozesuaren hobekuntza eta ikaslea helburu izanda.					
Helburuak	Ekintzak	Denboralizioa	Baliabideak	Jarraipena eta ebaluazioa	
				Jarraipen adierazleak	Lorpen adierazleak
3.1 Eskola publikoan Aurreraka proiektuarekin jarraitu	<p><b>Prozesuen Mapa</b> berritzea amaitu adituen laguntzaz.</p> <p><b>Adierazleak eta Prozesuen Mapa</b> berria uztartu eta joeren analisia aurreikusi Sare mailan. Prozesuen mapa berritua eraman <b>KH aplikazioa</b>.</p> <p><b>Autodiagnostikoaren</b> inguruko <b>aholkularitza</b> eman.</p> <p><b>Kontrastea eta Ziurtagirien</b> eskuratzeko prozesuekin jarraitu hala nahi duten sarekideekin.</p> <p><b>Plan Estrategikoaren 1. bertsioa</b> sortu eta argitaratu.</p> <p><b>Plan Estrategikoaren</b> garapenaren <b>aholkularitza</b> eskaini.</p>	Ikasturtean zehar	<p>Dinamizatzaileak</p> <p>Lantaldeak</p> <p>KH koordinatzaileak</p>	<p>Plan Estrategikoa aztertu eta hobekuntzarako proposamenak jaso.</p> <p>Adierazle proposamenak jaso.</p> <p>Kontraste lan-taldea sortu.</p> <p>Prozesuen mapa berritzeko proposamenak jaso.</p>	<p>Plan Estrategikoa publikatu.</p> <p>Aginte koadro berritua partekatu sarekideekin.</p> <p>Kontrastea egiteko formazioa gauzatu.</p> <p>Ziurtagiriak banatu.</p> <p>Aginte koadro berritua partekatu sarekideekin.</p>

### 4 Helburua

Sarearen funtzionamenduaren etengabeko hobekuntza sustatu: partekatze-guneak, ikastetxeen konpromisoak, elkarlana...					
				<b>Jarraipena eta ebaluazioa</b>	

Helburua	Ekintzak	Denboralizazioa	Baliabideak	Jarraipen adierazleak	Lorpen adierazleak
4.1. Sarean lantzen dena ikastetxera transferitzeko moduen inguruan lanketa egitea.	Aukeratutako saioretan bideo-grabazioa egiten jarraituko dugu. Presentzial nahiz bideo-deien bitartez egindakoetan.	Ikasturtean zehar	Ikastetxeetatik eta KH koordinaziotik proposatutakoa	Proposamenak bileren aktetan jasotzea.	Ikastetxeetara eramaten den informazio-bidea -modua berritzea.
4.2. Ikastetxeen beharrak eta praktika onak sarera heltzeko moduak mantentzea eta zabaltzea	Iradokizun tresna erabiltzen jarraitu. Praktika onak zabaltze ahaleginarekin jarraitu Teoriatik Praktikara asteen. BerritsuTaberna ekimena gauzatu egoera berriari egokituz. Ikastetxeen aurkezpenak aurreikusi ohiko bileretan praktika onak zabaltzeko.	Ikasturte hasieran eta amaieran	Ikastetxeetatik eratorritako iradokizunak	Irailean eta Ikasturte amaieran egindako bileren aktak.	Partekatutako praktika onen kopurua handitzea. Ikastetxeetako beharrak sarean azalduta izatea.
4.3. Ikastetxeen konpromisoak gogoratzea eta betetzea.	KH Sarean egotearen Konpromisoa mantendu eta bete.	Lehenengo ohiko bileran	Hiruhilekoetan egindako jarraipen bileren aktak.	Irailean egindako bileren aktak.	Ikastetxeen %90ak hartutako konpromisoak bete.
4.4. KH aplikazioa pilotatzen hastea.	Mapa berritik abiatuta Kalitatea Hezkuntzan Aplikazioa hornitzen amaitu eta sarekideei eskaini tresna. Aplikazioaren hobekuntzak ezarri	Ikasturtean zehar	KH taldea, Eje, lantalde teknikoa	Bilerak egin eta hauen aktak	Aplikazioa aurkeztu Sarean erabiltzen has daitezten.
4.5. Koaderno digitala garatzea.	KH Sarea Koordinaziotik parte hartu garapenean edo gure prestutasuna eskaini.	Ikasturtean zehar	KH taldea, Eje, lantalde teknikoa	Bilerak egin eta hauen aktak	Aplikazioaren garapena.

## **2021-2022. PROYECTO CALIDAD EN LA ENSEÑANZA**

Se va a continuar con el trabajo y metodología de años anteriores trabajando en red con otros 60 centros implicados en el proyecto.

Seguiremos contando con un grupo dinamizador externo y con profesionales de Euskalit para seguir trabajando en el proyecto de gestión de Centros.

El punto de partida va a ser la Gestión avanzada de los centros y el trabajo se organizará en distintas fases de trabajo marcadas por el proyecto de gestión a realizar tomando como punto de partida el Autodiagnóstico del Centro.

También se revisarán y renovarán los principales procesos del Sistema de Calidad en la enseñanza.

Trabajaremos a dos niveles; por un lado, en reuniones mensuales de todos los centros implicados en el proyecto que tienen lugar en el Instituto de Arrasate y, por otro, a nivel de centro, utilizando las horas de formación del profesorado para el proyecto.

En las reuniones generales todos los centros implicados en la red aportarán y compartirán experiencias para impulsar y lograr un proyecto de mejora global. Hay intención de organizar sesiones “Desde la teoría a la práctica” en las que los distintos centros que trabajamos en red explican sus experiencias y forma de trabajo sobre los procesos de calidad y “Berritsu Taberna, reunión informal de los centros que participan en el proyecto.

Al final de curso el centro evaluará el trabajo realizado. Se valorará la consecución del trabajo planificado y las mejoras implantadas, subrayando planes de mejora que puedan hacerse para el futuro.